

2024

JARDUEREN MEMORIA



Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA



- **Hizkuntzen irakaskuntza**
- **Matrikulak**
- **Ikastaroak eta hizkuntzak**

Ingelesa

- Kinder
- Hastapena
- Ikasleentzako ingelesa
- Helduentzako ingelesa

Beste hizkuntza batzuk

+55entzako ikastaroak

Beste erakunde batzuentzako ikastaroak

- **Beste jarduera batzuk**

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaro trinkoak

- **Beste hezkuntza-jarduera batzuk**
- **Idiomas Vital Fundazioak bigarren ikasturtea bete du Laudion**
- **Izena ematea webgunearen bidez**
- **Cambridge azterketak Idiomas Vital Fundazioan**
- **GJH-Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat**



Hizkuntzen irakaskuntza

Idiomas Vital Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, pribatua eta helburu sozialekoa, eta hizkuntzen irakaskuntza finantzatzea, sustatzea eta arlo horretako zerbitzuak ematea du helburu.

1967an sortua, Idiomas Vital Fundazioak berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza bere jardura hizkuntzen kalitatezko irakaskuntzan ematen, ingelesa bereziki, eta 14 urtetik beherako gazteei gehienbat.

Gaur egun, hezkuntza-eskaintzak ingeles-irakaskuntza ez ezik, Arabako gizarteak gero eta gehiago eskatzen dituen beste hizkuntza batzuen irakaskuntza ere hartzen du barne, hala nola, frantsesa, alemana, txinera eta arabiera.

Ingelesklaseak dira oraindik ere ugariak, eta fundazioaren jardunaren ardatz nagusia dira. Hizkuntza horretako hezkuntza-eskaintzak maila guztiak hartzen ditu, eta helduei nahiz zazpi urtetik aurrerako ikasleei zuzenduta dago.


Alemana nahiz frantsesa ikasteko eta txineraren nahiz arabieraren hastapeneko klaseak hartzeko, ikasleek DBHko 1. mailako ikasleak edo hortik gorakoak izan behar dute edo hamabi urte beteta izan.

Matrikulak

2023-2024 ikasturtean, guztira, **845 ikasle** matriklatu dira, batez beste 11,73 ikasle gela bakoitzeko, 72 taldetan banatuta.


Ikasleen adinari erreparatuz gero, ikasleriaren erdiak baino gehiagok 14 urte baino gutxiago dituela ikus dezakegu.

2023-2024 ikasturteko matrikulak



- 14 urtetik beherakoak
- 14 eta 16 urte bitartekoak
- 16 eta 18 urte bitartekoak
- 18 urtetik gorakoak

Ikasle kopuruaren bilakaera



	22-23 IKASTURTEA	23-24 IKASTURTEA
■ 14 urtetik beherakoak	464	413
■ 14 eta 16 urte bitartekoak	145	157
■ 16 eta 18 urte bitartekoak	80	101
■ 18 urtetik gorakoak	110	174


Ikastaroak eta hizkuntzak

Ingelesa

Ingelesa da, maila guztietan, ikasleek gehien eskatzen duten hizkuntza. Horregatik, eskolen eskaintza gainerako hizkuntzetan baino askoz zabalagoa da.

Lehen hezkuntzako 2. maila ikasten ari diren ikasleekin egiten da hizkuntza horretarako lehen hurbilketa. Zuzenean sartzen dira **Kinder** izeneko ikastarora. Hurrengo ikastaroa **Hastapena** da, eta 3 maila ditu. Ikasturte honetan ikastaro hauek eman dira:

Ingeles-hastapeneko ikasleak



Kinder

Talde bat eta eskola-ordu bi astean.

Hastapena

Hastapeneko 1. mailako hiru talde; hastapeneko 2. mailako bi talde; eta hastapeneko 3. mailako hiru talde. Bakoitza astean bi eskola-ordukoa.



Ingeles ikastaroen eskaintzak ikasleen adinari eta egiten ari diren ikasturteari lotuta jarraitzen du. Horregatik, Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrak zuzenean sartu dira **A1.1** izeneko ingeles ikastarora. Gainerako adin guztietan, **mailakatze-pro-**

ba bat egin da izena aurretiaz emateko unean, ikasle bakoitza zer ikastarotara sartuko den erabaki ahal izateko. Ingeleseko A1.1 mailako lau talde; A1.2 mailako sei talde (horietako bat Laudion); A2 mailako sei talde; B1 mailako bost talde; eta B2.1 mailako lau talde aritu dira astean 3 eskola-ordutan.


Category	Number of Respondents
A1.1	49
A1.2	81
A2	80
B1	80
B2.1	82

 IKASTARROAK



Helduentzako ingeleseko eskolei dagokienez, 23-24 ikasturtean zehar astean 3 orduko **best maila** eskaini dira. A2 Ad. mailan hiru talde osatu dira (horietako bat Laudion); B1 Ad. mailan talde bi (horietako bat

Laudion). B2.2 mailan ikasle eskaera handiagoa izan dute eta bost taldetara iritsi dira; C1.1 mailan hiru talde eta helduentzako ingeleseko azken maila den C1.2 mailan beste bi.




Beste hizkuntza batzuk

Idiomas Vital Fundazioak bigarren **euskara**-ikastaroa eskaini du, beste autonomia-erkidego batzuetatik edo beste herrialde batzuetatik etorrita, gure hezkuntza-sisteman sartzen diren eta ikasgelan erabiliko duten hizkuntza egunean jarri behar duten pertsona guztientzat. Iaz hasi zen 10 urtetik gorako ikasleentzako astean 3 orduko ikastaroari jarraipena eman diogu, eta A1.2 mailako 8 ikasle izan ditu. Idiomas Vital Fundazioak beste hizkuntza komunitario batzuetako ikastaroak ere eskaintzen ditu, hala nola **alemana** eta **frantsesa**. Ikastaro horiek, ikasturtea bezala, irailtik ekainera bitartean ematen dira, hamabi urtetik aurrerako

ikasleentzat. Ikastaroak astean hiru ordukoak dira. 23-24 ikasturtean aleman hiru maila egon dira (horietako bi Laudion) eta frantses hiru maila (honetan ere, horietako bi Laudion).

Idiomas Vital Fundazioak beste hizkuntza batzuk irakasteko eskaerari ere erantzun dio, haien irakas-kuntza ez baita ohikoa izan gure lurraldean. Irakasle batek **arabierako lau mailatako** eskolak ematen dizkie hamabi urtetik aurrerako ikasleei. 23-24 ikasturtean hizkuntza hori 26 ikaslek aukeratu dute eta astean hiru eskola ordu jaso dituzte.

Ikasleak beste hizkuntza batzuetako ikastaroetan



+55 urtetik gorakoentzako ikastaroak

Vital Fundazioak hizkuntzak ikasteko programa bat du, 55 urtetik gorakoei eskaintzen diena, eta ikasturtea bezala, irailetik hurrengo urteko ekainera bitartean egiten da. Idiomas Vital Fundazioan egiten dira ikastaroak eta astean 3 ordukoak dira,

eta ingelesa, frantsesa eta euskara eskaini dira. 55 urtetik gorako 80 ikaslek, zortzi taldetan banatuta, **ingeles hizkuntzaren** ezagutza hobetu dute eta beste 12k **frantses** talde batean hartu dute parte.

Beste erakunde batzuentzako ikastaroak

Aurreko guztiaz gain, Egibideko Lanbide Heziketako ikasleei ere prestakuntza eskaini zaie, ingelesa hobetzeko. A1 eta B1 mailetakoko talde bi izan ditugu, astearte eta ostegunetan, 2023ko urritik 2024ko otsailera. Guztira bi orduko 30 saio izan dira, 16:00etatik 18:00etara, eta guztira 13 ikasle izan dira.



Beste jarduera batzuk

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaro trinkoak

2023-2024 ikasturte honetan, azterketa ofizialak prestatzeko ikastaro trinkoen eskaintza berritu dugu, bai B2/FIRST mailarako, bai C1/ADVANCED mailarako. Modalitate bi eskaini di-

tugu: bata, astelehenetik ostegunera, egunean ordu eta erdiko klasea emateko, eta bestea, ostiraletan baino ez, maiatzeko ostiral bakoitzean hiru ordu eta erdiko klasea emateko. Azkenik, azken aukera hori egin da eta B2ko talde bi sortu dira, 30 ikasle guztira eta C1eko talde bat, 7 ikasle guztira. Orotara 17,5 klase-ordu eman dira.

Beste hezkuntza-jarduera batzuk

Idiomas Vital Fundazioak ikasgelak, multimedia-gela, hizkuntza-laborategi digitala, liburuak mailegatzeko zerbitzua duen liburutegia eta ikasketa-gela ditu bere instalazioetan.

Ohiko eskola gehienak 16:30etik 21:00etara izaten dira, astelehenetik ostegunera, eta laborategiko ordutegia 17:30etik 20:30era da, astelehenetik ostegunera, eta 17:00etatik 19:00etara, ostiraletan.

Idiomas Vital Fundazioak, eskolak emateaz gain, hezkuntza-jarduera ugari egiten ditu. Horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

Ikasleentzako aholkularitza zerbitzua, ikastaroei, azterketei, atzerriko egonaldiari, ikasle-trukeei eta lanei buruz, eta laguntza ematen zaie curriculumak eta aurkezpen-gutunak egiteko nahiz lan-elkarrizketak prestatzeko.



Idiomas Vital Fundazioak bigarren ikasturtea bete du Laudion


2022ko irailean Idiomas Vital Fundazioak Laudion duen egoitza berria abian jarri ondoren, 2023-2024 ikasturtean mailen eskaintza handitu da eta ingeleseko 3 maila, alemaneko 2 maila eta frantseseko 2 maila egon dira, eta beste

esparru batzuetara iristen saiatzen jarraitzen dugu, hala nola enpresa edo merkataritza esparrura, gure sorrerako helburua betetzeko, hau da, Aiarako bailara osoan hizkuntzetan kalitatezko prestakuntza eskaintzeko.

Izena ematea webgunearen bidez

Webgunearen berritzea burutu zenez, **2023-24 ikasturteko online matrikulazioa** eskaini ahal izan zaie, aurten ere, jadanik prestakuntza jasotzen ari ziren ikasleei nahiz lehenengoz etorri direnei, eta erraztasunak eman dira ikastaroko kuotei aurre egiteko; izan ere, **epe bitan ordaintzeko** aukera izan da (irailan eta urrian). Ikasturte honetan, % 15eko hobariak eman zaizkie familia-unitate bereko hiru kide edo gehiago matrikulatuta dituzten ikasleei, eta % 15ekoak Estadio Vital Fundazioko abonatuak. Kuoten zenbatekoa 420 €-koa eta 630 €-koa izan da 2 eta 3 orduko ikastaroetarako, hurrenez hurren, 2023-2024 ikasturtean.

Ikasle berrien kasuan, nahitaez aurrez aurrekoa izan behar izan duen maila-probak aurretiko hitzordua behar izan du. Webgunea berritzeak prestakuntza eta eduki gehigarri berriak eskaintzeko aukera ematen digu, oraindik ere, **prestakuntza 'Moodle'** baten bidez. **Moodle** horren bidez, hainbat tresna elektronikori esker komunikatzen dira irakasleak eta ikasleak. Plataforma horrek prestakuntza-dokumentazio osagarria eskuratzea ahalbidetzen du, baita **ikaskuntza hobetzeko ariketa praktiko ugari** ere. Ariketak mota guztietakoak dira: testak, ikustekoak, ikus-entzunezkoak, eta abar.



Cambridge azterketak Idiomas Vital Fundazioan

Cambridgeko Unibertsitatearekin egindako akordioari esker, Euskal Herrian duen Kristau Eskola zentro aztertzailearen bidez, lehen aldiz antolatu ahal izan ditugu Fundación Idiomas Vital Fundazioaren instalazioetan 2024ko ekainaren 1eko deialdian First/B2 eta Advanced/

C1 mailetarako azterketa ofizialak. Hemendik aurrera, Idiomas Fundazioan maila horietan matrikulatutako pertsona guztiak Cambridgeko azterketa ofizialetara aurkeztu ahal izango dira ikasturtea amaitzean, eskolak eman dituzten gela berberetan.

Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat

Idiomas Vital Fundazioaren irakaskuntza-lana bat dator Nazio Batuen 2030 Agendan zehaztutako Garapen Jasangarrirako Helburuetako (GJH) laugarrenarekin: **Kalitatezko Hezkuntza**. 8. GJH: **Lan duina eta hazkunde ekonomikoa** eta 17. GJH: **Helburuak lortzeko itunak** ere partekatzen ditu.

Idiomas Vital Fundazioak berrogeita hamar urte baino gehiago daramatza hizkuntzen kalitateko irakaskuntzan, eta bere azpiegiturak berritzearen eta egokitzearen alde egin du, pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntza bermatu dadin.





Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA